

Norbanako jarreratik talde jarrerara. Sentiberatzea eta komunikazioa

Paula Kasares

Txepetxek elkarri loturik agertu zuen hirukote horretan [erabilera ↔ gaitasuna ↔ motibazioa] motibazioa da azterketa gutxien izan duena. Gaitasunari eta erabilerari loturiko arlo anitz ikertu egiten dugu, adin taldeen arabera neurtu, bertze garai batzuetatik orain bitartean diakronikoki aztertu nola bertze hizkuntza batzuen egoeraren aldean konparatiboki agertu. Motibazioaren inguruan, berriz oso intuitiboki jokatu ohi dugu gure eguneroko lanean.

Nire gaurko ekarpena ere ez da motibazioaren gaineko ikerketa sakon baten ondorioa. Nire ekarpenak jendebanakoaren nola jendetaldearen motibazioaren gainean egin dudan gogoeta du oinarri, motibazioaren inguruan izan dudan eskarmentua eta egindako hausnarketak. Haurrak, gazteak, gurasoak, jendea oro har euskara gehiago egitera, edo ikastera ez badakite, nola bulkatu, nola berotu da nire kezka nagusietako bat.

Nire mintzaldiak “*Norbanako jarreratik talde jarrerara: sentiberatzea eta komunikazioa*” du izenburua. Has gaitzen, motibazioaren bi mailak ikusten: jendebanakoarena eta jendetaldearena.

Hizkuntza gertakariak bi maila horiek ditu, bata hiztun norbanakoari dagokiona eta bertzea hizkuntza komunitateari, jendarteari dagokiona.

Hizkuntza gertakari kolektiboa da eta, aldiz, gauzatze partikularra –norbanakoa- du. Dikotomia hori beti agertu da hizkuntzaren gaineko teorizazioetan nola elebitasunaren gaineko formulazio ezberdinetan.

Motibazioaren aldetik, hizkuntzaren bizitza nahi edo borondate kolektiboaren baitan dago. Eta jendetaldearen borondate hori jendebanako borondate partikularrez osatuta dago. Hau da, biak lotuta daude, eta batean egindakoak bertzean izanen du eragina, adibidez: jendebanako anitzen jarrera

gogoia duen hiztuna baino eredu hoberik ez dago.

Ondorioak

Gogoeta honen ondorio gisa, bi arlotan:

Sentiberatzean:

- Motibazioaren gaineko ikerketa beharrezkoa da. Ikerketa kualitatiboa. Etnografia diziplina egokia da ikerketa horretarako azterketaren sakontasuna bermatzen baitu. Horrek emanen digu argi anitz sentiberatze dinamika ulertzeko, gure xede taldea hobeki ezagutzeko, mezuak egokitzeko...
- Jorratu gabeko hunkibideak ditugu: komunikazioaren alor ezberdinak, zentzumenak, gorputza,... horietatik oso erakargarriak suerta daitezkeen hainbertze landu gabe ditugu.
- Elkarteetatik motibazioa pizteko bideei dagokienez, honako proposamen hauek: gizarte ekimenak aukerak sortzeko lanean segitu behar du, aukerak eman, gozamina ahalbidetu. Erosotasunak erakartzen du, ez nekeak, sormenak ez konpromisoak. Hizkuntza esperientzia konpartitu gisa agertu, euskaldun egokien erreferentzialtasuna erabili, euskaraz egiteko gogoia duten pertsonen erakargarritasunaz baliatu.

Horrekin ez dut erran nahi hiztunaren kontzientziatze aldera inoiz jo behar ez denik. Horretan ere bada zer egina. Konpromisoa aktibatu behar da hizkuntzaren erabilera soziala hiztunen jokaeraren baitan baitago. Baina nire tesia da ezin dela hori motibaziorako ildo bakarra izan.

Komunikazioan:

- Komunikazioaren arloko profesionalen ekarpena beharrezkoa da. Oroit naiz joan den urtean "Euskara maite, erabili, kontsumitu,

komunikatu” hitzaldia entzun niola Iñigo Fernández Ostolaza “Euskara nola saldu” artikulua ere egileari. Horrek ere komunikazioaren arloko profesionalen beharra azpimarratu zuen.

- Euskarari marketina aplikatu behar diogu. Euskarak komunikazio arloa zaindu behar du: profesionalak, diskurtsoa, xede taldea aztertu, nolakoak diren zabaltzen ditugun mezuak/diskurtsoak, zer ideia transmititzen ditugun... hori dena zaindu behar da.
- Estrategia komunikatibo sozial berria euskararen inguruan, nazio mailakoa hobe. Euskarak pairatzen baititu kultura-hizkuntza gutxituek komunikazio arloan dituzten arazoak, gabeziak, eskaxkeriak.

Aipamen bibliografikoak

Etxegoien, Fermin (2004). *Neurona eta zeurona. Hizkuntza “estetika” bezala*. Upaingo saila. Iruña: Pamiela.

Fernandez Ostolaza, Iñigo (2006). Euskara nola saldu. Sarean:

<http://www.sweetcreeps.com/euskaraz2/categories/9-Euskara-nola-saldu>

Suay, Ferrán (2007). HIZNET garduondoko 2007-2008 ikasturteko hasiera ekitaldian egindako hitzaldia. Argitaratu gabea.